

Gure zaharrak, begiramen eske

Deia, 1977-09-03.

Gipuzkoako auzi bat dugu gaur adibide.

Baina Euzkadi osorako balio du, eta gizarte osokoaren ispilu ilun bat besterik ez da.

Auzi nagusia eta larria: gure jubilatutako zaharren egoera.

Lehendabizi, berebiziko Geriatriko eder bat eraikitzen dute Donostian. gure zaharrentzat Paradisu bat, noski. Baina, honetan, erabaki bat hartzen da: etxe eder honi aldakuntza batzu egin eta Seguridad Social-eko bigarren Residentzia bihurtuko da; eta, hala, gure jubilatutako zaharrei zor zaiena beste modu batera beteko da probintziako leku batzuetan etxe berri eta egokiak eraikiz.

Orain arte, badirudi honek oraindik zentzurik baduela.

Jubilatuentzako aginduak dauden etxe horiek egiteko behar diren lurrak eta etxegintzarako diruak Ministerio de Trabajo-k ordaindu behar dituzenez, leku-aukera berrien zai dagoela adierazten du. Bigarren aldiz geratzen dira gure jubilatutako zaharrak zor zaien azken babes honen zain.

Herri batzuk aurreratzen dira Ministeritzari han eta hemen lur batzuk eskaintzera baina honek ez ditu onartzen. Eta ez da hau bakarra, bitartean, aspaldi behar eta orain agindutako bigarren Residentzia hau ere ez da zerbitzuan hasten; orain dela bi urte luze bukatutako etxe eder eta garestia eta hainbeste kostatako klinika-materiala, utziak daudenez, alferrikaltzen ari dira; gaixoak, Residentzia zaharreko pasilloetan operazio bat egiteko txanda zain.

Ez al da utzikeria hau negar egin araztekoa?

Edo borrokan hastekoa.

Hemengoak dira honetarako gora-behera dabilten diruak, hemengoak gaixoen eta zaharrak, hemengoak lurrak, hemen dago gure gaixoen behar dituzten eta eraikitako etxe eta erositako material garestiak alperrik galtzen, hemen hainbeste kostatako etxe ederra, hutsik.

Ministeritza famatu hori, Madrid-en.

Non hartu behar dira erabakiak honelako gauzak gerta ez daitezen? Hemen.

Ba da justizia apur hau lortzeko garaia.

Gure herriko, gure herrian eta guretzako lanean zahartu direnek, merezi dute gure begiramena eta arreta. Ez dio inork erregaliarik egin behar, zor zaiena ordaindu baino.

Baina zorra hor; gaixoak, hor; zaharrak, hor.

Eta lo dagoela bagenek, hainbestean. Baina ez baita inork zergatik eta zertarako montatu eta zaharrek eta gaixo sentitzen direnek sufritu behar duten galera ukigarri, ilun eta triste hau.

Gure herria beti ahalegindu da bere zaharrak eta gaixoak eta eriak zaintzen.

Euskal Herriko hospitalak askotan aipatu izan dituzte idazle zaharrek, ez baitzen honetaz Penintsulako beste berrietan udaletxea honenbeste arduratzen.

Eta orain, gizartea osorik kontzientziatua daukan arazo honetan, nola utziko dugu ba honelako utzikeria eta ajolagabekeria bat protesta gogor bat egin gabe!